

ELKARRI MOKOKA: Andrea Etxarri eta Mikel Hernandorena **KUXKUXEAN:** Iraileko zorion agurrak
ERREPORTAJEA: Joseba Oreja **ELKARRIZKETA:** Izaskun Iparra **HAIZEAK ERAMANA:** Beatriz Oreja

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Udaren bueltan indartsu

Gari Huizi (Uztegi)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Hilabeteko etenaldia egin ondoren, bueltan gatzoz ikasturte berria gogotsu hasteko. Dagoeneko zenbait festa ospatu dituzte herriz herri, baina oraindik beste horrenbeste ditugu zain.


Mailope oporretan

Aurtengo udan gure irakurle gaztetxoei ez zaie Mailope motxilan sartzea ahaztu! Italiaraino ere eraman dute. Horra hor jaso ditugun argazkiak!!

1



2



3



4



1. Goikoetxea Erbiti familiak Pisako Dorrea bisitatu du udan.
2. Jakes, Jone eta Alainek Leitzako parkean atera zuten udako argazki hau.
3. Lekunberriko Julen eta Manex berriz, Tossa de Marrera joan ziren uztailean.
4. Eta Ainhoa Lertxundi eta bere familiak mendi buelta ederra egin zuten Mailope gainean eramanda.

**GRUPO TANATORIO
IRACHE**
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

**TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA**

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

**Iñigo Garaioa
MARGOLARIA**

 696 658 288
LEKUNBERRI

SK

**SUAKONTROL
LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak

Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez-Betelu

09> Zabal: Iñigo Ulazia



10 > Joseba Oreja

Beteluar honek urteak daramatza musikaren munduan lan egiten. Gabezin plaza taldeko sortzaileetako bat da eta DJ bezala ere ibiltzen da plazaz plaza.

12> Kuxkuxean: Iraileko zorion agurrak

13> Lauburua: Atari digitalak

14> Batzarre



18 > Izaskun Iparra

Irache beilatokian egiten du lana Izaskun Iparra. Heriotza gure egunerokoan presente dagoen gertaera bat izan arren, naturaltasun gutxirekin tratatzen dugu. Izaskunek bere lanaren bidez heriotzaren gazi-gozaok erakutsi dizkigu.

22> Erreportajetxoa: Jaiak



24 > Erdi Aroko Azoka

Abuztuan Erdi Aroko Azoka ospatu zen Lekunberrin. Aurten Mikel Mikeoren "El txikito Nicolás" antzezlanaz plazaratu zuten herritarrek.

26> Kirola: Anizetoren buelta

28> 20 urte bidean

30> Ekinaren ekinez: OKM Abokatuak

31> Kontu txikiak

Mailope doan banatzen da honako herrietan: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Nerea Urbizu, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Rafa Etxarri, Joxe Mari Zabaleta, Agurtzane Altuna, Aner Ansorena, Beatriz Oreja eta Ondare Kultur Taldea.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103
mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

TIRADA: 1.600 ale.



Esne kuotak desagertzearekin batera

Azken aldian gertatutakoaren autokritika egin beharra daukagu.

Kanpoko ekonomiak, ekonomia finantzieroak edo ekonomia produktibistak, izan duten eraginak ez du lagundu gure herria/baserria sustatzeko, haren eraginez baserriak bertan behera geratu dira. Gure esku ere galdu dira, behitegi eta baserriak. Administrazioak gainbehera luzatu eta leundu du, baina ezin du norabidea markatu edo zuzendu.

Kuotak desagertzea aukera on-ona da: merkatua behitegi haundiak indartzen ari da: 10.000 tik gorako aberekin, guztiz mekanizatuta; esnearen prezioak 30 urtetan ez dira aldatu... honen guztiaren aurrean ez dugu zereginik. Merkatutik at, gure produkzioak herriaren beharrak asetzeko antolatuta behar dugu, ekologikoaren (gure arbasoek lan egiten zekiten era) aldeko birmoldaketan (ez dugu ur-txuri gehiagorik nahi).

Lan egiten badakigu, eta ongi.

Behiek inoiz ere ez dute kuotei buruz ezer ulertu. Naturak bere eritmoak markatzea, ez da muga, laguntza baizik. Gizaldiz gizaldi nekazaritzan aritu gara, jakinduria jasota eta munduan eredu garelarik, hainbat alorretan.

Etorkizunera begira: lehendik ere nekazaritza egoera larriak pasa ditu; orain, garai berrietara moldatu ezinik, moldatu behar al dugu gure herria edo garai berriak gure erara edo eskura moldatu, ongi egiten dakiguna egiten?

Nora jo nahi dugu? Gazteei ateak ireki, ez dugu ustiaketa zentzugabe honekin jarraitu nahi; helduek badakigu lanean egiten eta aitatxi-amatxien jakinduriaz jantzi behar dugu.

Baserriak bizi behar duelako, hau baita ingurunearen gestiorik hoberena egiten duena, gure kulturak antzina-antzinetik ulertu du.

Ezin diogu naturari, lurrari, animalia eta landareei mugarik gabeko hazkundera eskatu (Frankfurt edo Bostongo burtsa bezala), gainera, merkatuak ez du bere hazkudearen esnegileei bere parte ordaindu (merkatuak hazi diren bezala ez dizkiete esnegileei ordainak igo).

Elkartu beharra daukagu baserria-herriak-hiria.

Hirietan bertako produktuak baloratzen duen jende asko dago (bakarka edo taldetan), elikagai onak eskatzen ditu eta herrien garrantzia ulertu du: bertako-hurbileko-garbi, lurraren ahalmena bortxatu gabe, zelaietatik etxera zuzen, gutxieneko bitartekariekin,... Baserriek ere nolabaiteko elkarteak sortu behar dituzte egoera aztertu eta arazoiei aurre egiteko.

Herrietako jendea ingurunea/amalurra/nekazaritza/bizia/elikadura zaintzeko egiten dugun lanagatik ordea behar dugula

konturatu gara, bizi duina eramateko. Nekazariok gure lana eskertuko duen jendearekin zuzenean egin behar dugu tratatu.

Proposamena, garatu beharrekoa, hauxe da:

-Lortuko genuke: duintasunez bizitzea; elikagai osasungarriak; merkatuen menpe ez egotea eta bere xantaiak ez jasatea; burokrazia txikitzea; naturaren garatzea,...

-Beharko genuke: etekinak ditugun baliabideen arabera antolatzea; imput eta gastuak gutxienezkoak izatea; arbasoen eta manejo naturalaren inguruko ezagupenak berreskuratzea eta garatu; ekologikoa kontsumitu nahi dutenen konpromezu sendoa, ekoizle, elaboratzaile eta kontsumitzaileen arteko elkarlana garatu, topaguneak aurkitu,...

Gutxi gorabehera, nekazaritza ekologikora errekonbertsioa litzateke.

Hurbilekoari laguntza eskatzea ere, bada bidea errazteko aukera paregabea.

Oso erraza da: guk norabidea markatzea, herri bezala aritzea, guk geuk etorkizuna geure neurriera landu, guztia gure alde dugu, lurra ongi zainduta beti hobera egiten du.

Lan erraza eta nekeza dugu aurrean, nekazariok.

Jon Usetxi

Ttutturre Kirol Elkarteak Nepalekin Lekunberri – Larraun Nepalekin

Ttutturre Kirol Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu Lekunberri eta Larraungo herritarrei, Institutioei eta Ttutturreko bazkideei, lurrikarek NEPALen sortutako kalteen aurrean bertako biztanleria laguntzeko burutu den diru bilketa kampanian parte hartzeagatik.

Bildutako dirua, 4.001,74 €, Sherpa biztanleriaren artean banatzeko ardura duen LUKLA LODGE Elkarteari helarazi zaio. Bertan Koldo Aldaz eta Mikel Lizeaga bezalako mendizaleek laguntzen dute.

ESKERRIK ASKO, bihotz-bihotzez.

Ttutturre Kirol Elkarteak

Hostal Betelu
<http://www.hostalbetelu.com>
Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak
Etorri eta on egin!
Erreserbak: 948513026 676145637

BETELU PNEUMATIKOAK
TAILER MUGIKORRA
NEUMATIKO ALDAKETA ZUZLATZEEN KONPONKETA
Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA
Gruas y Talleres LARRAUN S.L.
Lekunberriko industriagunea, 21. nabea
31870 Lekunberri Nafarroa
Mugikorra: 626 494 356
Telefona: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Etxarriko Arotz-Enea

Gogoratzen dut, sei bat urterekin, Etxarriko eskolara joaten hasi nintzenean, 1964aren inguruan, alegia, bolada hartantxe egiten ari zirela Arotz-eneko (Ahotz-enea herritarrentzat) pilotalekua, eta hala uste dut agertuko dela gaur egun ere horma bateko goialdean, hau da, urte haren zenbakia.

Ordurako, Arotz-eneko udalekua martxan jarria zegoen, eta hantxe agertzen zitzaizkigun udaro-udaro Arotz-enean, neska-mutiko txanda batzuk (lau edo gehixeago) zenbait egun pasatzera; segur aski, txanda bakoitza 15 bat eguneko izanen zen gutxienez, garai hartan. Gogoan dut, konparaziora, bordariontzat a zer-nolako gertaera berezia zen, udalekuko haurrak herri-rik bordetaraino joaten zirenean oinez, beren txangoak egitera; guretzat egundoko nobedadea zen.

Baina, aurrera jarraitu baino lehen, beharbada komenigarria izanen da datu batzuk ematea Arotz-eneari buruz, esate baterako, Interneten jartzen du etxe hau 1877an dagoela egina, eta izena jatorrizkoa dela, horrek esan nahi du, garai batean hantxe arotza biziko zela. Dirudienez, urte horretan moldaketa bat egin zioten etxeari, barruko patioa eraikitzeke, baina etxea XVIII. mendekoa omen da. Hurrengo datuak ez dakit guztiz zehatzak izanen ote diren, baina ideia orokor bat edukitzeko behintzat, uste dut balioko dutela. Antza denez, 1960tik 1975 bitartean Arotz-eneko jabea gizon partikular bat zen, baina etxea Donostiako Udalak eta Donostiako Udal Aurrezki Kutxak alokatua izan omen zuten udaleku moduan; garai hartan Kati izeneko andre bat zen arduraduna edo kudeatzailea.

1975etik 1991 edo 92 bitartean Donostiako Udal Aurrezki Kutxak kudeatu omen zuen udalekua. Data horretatik 2000 urte arte Kutxa Fundazioak kudeatu omen zuen. Orain jabea fundazio hori da (Eduarne Legarrak esanda, hango langile finkoak), eta kontua da 2001eko azken egunean atera zirela etxe hartatik Maritxu Arangoa eta Jose Joakin Lasarte azkeneko aldiz (Eduarne lekuko). Azkeneko hauek beren bost seme-alabekin, nik Arotz-enean ezagutu ditut bizi izaten 1964tik 2000 arte. Urte horretatik aurrera (lehenago ez dakit seguru), Arotz-Enea udan udaleku moduan erabiltzen jarraitzen dute, eta urteko gainerako urtaroretan Ingurumen Eskola bezala, Kutxaren Gizarte Ekintzak sustatutako proposamena omen dena. Eguberrietan, Aste Santuan, asteburuetan eta jaiegunetan itxita egoten omen da gehienetan, salbuespenak salbuespen, eta uda kenduta, gauetan ez omen da inor gelditzen lotara han. Urtean zehar eskola eta ikastoletako haurrak joaten omen dira ingurumen gaiak ikastera, ikustera eta

bizi izatera. Nafarroakoak joaten ote diren ez dakit; lehen uste dut baietz.

Datuen pasarte hau bukatzeko, esanen dut Arotz-Enea 10.210 m²-ko lursail batean dagoela eta honako instalazio hauek omen dituela, alegia, eraikin nagusian: logela ohatzedunak, jantokia, sukaldea, bainugelak, erizaindegia eta abar. Jardueretako pabilioian: liburutegia, ekintza askotarako aretoa, dutxak eta abar. Kanpoan: igerileku estali gabea, pilotaleku estalia, aire zabaleko kirol-pista, jostatzeko eremuak eta abar.

Baina urte jakin batean (ez dakit 2000n izan ote zen ala lehenago), aldaketa bortitz bat gertatu zen bat-batean Etxarriko herritarrekiko, alegia, ordu arte Arotz-enea denentzat irekia eta herriko erdigunea izan zena, handik aurrera leku itxi eta bizi-modu guztiz pribatukoa bihurtu zen praktikan. Badakit hori gaur egun guztiz zilegi, legezko, arrunt eta logikoa izanen dela, baina bestelako Arotz-enea ezagutu genuenoi, aitortu beharra dut, gogor samarra egiten zaigula, izan ere, garai batean etxarriarrok, haur, gazte eta helduak, Arotz-enean ibiltzen baikinena, Pello Zabala Arantzazun gaur egun dabilen bezala, alegia, Maritxu eta Jose Joakinen seme-alabak gure ikaskide eta lagunak ziren, eta horren arabera jokatzeko genuen beraiekin Arotz-enean ere: nahi genuen atetik eta orduan sartu eta ateratzen ginen, nahi genuen denbora kopurua ematen genuen han hitz egiten eta jostaketan, gurasoek primeran tratatzen gintuzten; seme-alabek ere bai. Kanpoko instalazio guztiak (pilotalekua, futbol-zelaia, igerilekua, txirrista, esku-baloia, saski-baloia, boleibol-zelaia, pabilioia, eta abar, eta abar) erabiltzen genituen inolako mugarik gabe (nik hantxe ikasi nuen igeri egiten Juan Josek irakatsita, herriko gainerako haur guztiak bezalaxe), hainbat eta hainbat urtetan hantxe egin izan dira herriko jaietako dantzaldiak, bazkariak (Maritxuk ederki eta maitasun handiz prestatuak), mus txapelketak, haur jostetak, pilota partidu txapelketak, dantzari taldeen emanaldiak, bertso saioak, txistulariak, erronda, eta bat eta beste. Oraintxe bertan, nolana izanen dira 10 bat urte edo gehiago Arotz-enera sartu ez naizela.

Horrexegatik, garai bateko Arotz-enea ezagutu genuenok, iruditzen zait zeharo normala dela, oraingo etxe hura bera minez, atsekabez eta malenkoniaz kanpotik ikustea. Baina errealitatea hau da eta ahalik eta modurik hoberenean eraman beharko.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

ETXEZ ETXEKO EGUR SALMENTA

URTE OSOAN ZEHAR

EGURRA
EXPRES

☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Gari Huizi (Uztegi)



*Herri txikiko festek
ein dute beherantza
bertakoek nahiago
kanpora joan antza
horixe da garbitu
beharreko mantxa
baina hau aldatzeko
badut esperantza*

*Bertso hau kanta eta
lagunek algara
zu hau esateko
nor arraio zara
zakuaren barruan
aurkitzen naiz hara
autokritika egiten
hasi beharko gara*

Luis Mari Larretarentzako puntua:

Festa giroan gaude
handik eta hemendik

Oinak:

Dantzari, edari, txistulari, bekatari.



Doinua: Durangotik gorako

- 6 -



SKATEPARK-A LEKUNBERRIN

Iturritak kalean jarri dute skate, BMX, Rolling-a eta Scooter-a praktikatzeko. Irailaren 30era arte 10:00etatik 22:00etara egongo da erabilgarri eta urriaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte 10:00etatik 20:00etara.



1,472 KILOKO PATATA!!


Egoitz eta Eneko Oreja anaiek Azkaraten bildu zuten horko patata erraldoi hori.



SAN MIGEL AINGERUAREN AURREAN AURKEZTEN

Joan den uztailaren 19an, Aralarko santutegian, 62 haur inguruk egin zuten aurkezpena San Migel aingeruaren aurrean. Tartean ziren eskualdeko zenbait neska-mutiko. Dagoeneko hamaika urte badira aurkezpen hau egiten hasi zirenetik eta jada 700 lagun baino gehiagok eman dute izena San Migel Aingeruaren lagun izateko. *Argazkia: Joxe Mari Zabaleta.*

Etorkizun hobe baten bila



Mikel Hernandez

Kaixo Andrea! Zer moduz? Egia esan ilusio handia egiten dit Mailopen idazten hasteak eta ibilbide honi hasiera emateko egun hauetan telebistan nahiz komunikabideetan pil-pilean dagoen gai bati helduko diot: immigrazioa. Ia astero ikusten ditugu Ceuta eta Melillara iristeko asmotan bertako hesian hiltzen diren ehunka gizon-emakume. Kanariar Uharteetara nahiz Italiara pateretan iristen diren pertsonen kopuruak ere argi uzten du bitzta hobeago baten bila datozela. Bi-

“Kanpotik datorren jendeak gu bezainbesteko eskubideak ditu”

garrenik, azken egun hauetan Frantziako Calais hiriko immigranteen kanpamentura iritsitako immigranteek Erresuma Batura iristeko asmoa dute, baina Ingalaterrako gobernuak ez du immigranterik hartzeko asmorik. Bestalde, Toledoko Recas herriko Alderdi Popularreko alkateak, Gobernu Kanpoko Erakunde Batek kudeatzen duen jangela sozial batean, bertako herrikoak ziren haurrei soilik janaria emango diela agindu du. Hau da, herri honetan erroldaturik ez dauden umeei jateko eskubidea urratzeko asmotan dabil bertako alkatea.

Hau dena ikusita, arazo larri baten aurrean gaudela iruditzen zait, azken finean kanpotik datorren jendeak guk bezainbesteko eskubideak baititu. Non dago Nazio Batuen Erakundeak argitaratutako berdintasunaren printzipioa? Azken finean, ez da batere bizidun batzuek gure bizitzan baliabide guztiak ditugun heinean, beste batzuek gutxieneko beharrak asetzeko euren bizitza arriskuan jartzea eta behin baino gehiagotan bizitza galtzea. Izan ere, Mendebaldeko Kulturako gobernuak errua egotzen badiegu ere, herritarrok, zentzu handi batean, arazo larri honen errudunak gara. Zenbat aldiz entzuten da honako esaldia: “Kanpotarrak guri lana kentzera datoz hona”. Ez ote da izango guk gustukoak ez ditugun lanak errefusatu eta kanpoko jendeak lan horiek hartzen dituela? Lotsagarria benetan.

Zuk zer deritzozu gai honen inguruan Andrea? Besarkada bat!



Andrea Etxarri

Aupa Mikel!!! Zer moduz uda bukaera? Nik asko disfrutatzen dudana garaia da, eguzkiak eta uda giroak alaitasun berezia dutela uste dut eta bukatzeko pena pixkatekin nabil. Hala ere, gauza guztiak bukaera duten bezala, proiektu berri honetan hasteak ere ilusio berezia egiten dit, eskualdeko aldizkariari gure ekarpen txikia elkarrekin egitea aberasgarria izango dela iruditzen zait.

Zuk aipatzen duzunari dagokionez, benetan kontuan izan beharreko mundu mailako erronka garrantzitsua dela uste dut, berriz ere gizakiaren berekoikeria agerian uzten

“Ez al dira bada atzerritarrak gu bezain gizaki?”



duena. Bai, egia da ez dela gauetik egunera konpondu daitekeen arazoa, baina argi izan behar dugu immigranteak, haien jatorria edozein dela ere, sistemaren biktimak direla eta inoiz ere ez errudunak. Batetik, pateren etorrek zein harresi igarotzeak komunikabideen bidez “inbasioaren psikosia” pizten saiatzen dira batzuetan, gizakiak piztiak bailiran muga fisikoen bidez baztertuaziz

eta gizatiarra ez den tratua emanez. Hau, arazoari adabakiak jartzea da, arazoa “bertan gera dadila” erantzun bidez konpontzen saiatzea, bizkarra ematea. Bestetik, Mikel, zuk esan bezala, askok guri lana kentzera datozela diote, baina askotan hau esaten duten berberak haien senitartekoak zein ezagunak atzerrira doazenean “haien etorkizunarengatik borrokatzea” doazela diote. Ez al dira bada, atzerritarrak, gu bezain gizaki? Ez al dira haiek, aberria utzi eta bizi baldintza hobeago batzuegatik borrokan, ondorio larrienak pairatzen dituztenak? Arazo honi aurre egiteko begiak itxi eta ezikusiarrena egiteak ez du laguntzen eta egoera erregulatzeari ezinbestekoa deritzot bertako edozein herritar bezala tratatuak izan daitezten. Honela esplotazioa gutxiagotu eta guztiok kontuan hartzen gaituen mundua sortzeko aukera irekitzen du, orain arte giza-eskubideen gainetik jarri izan den gutxi batzuen etekin-gosea ekidinez.



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Ezina, ardura ez hartzea denean

Gogoan daukat, umetan maiz nola esaten nuen “ezin dut” eta amak, amonak edo andereñoak esaten zidaten “*bai, ahal duzu*”. Zenbat aldiz esaten nuen ezin dut saiatu gabe, jakin gabe benetan ahal ote nuen. Zenbat aldiz, saiatu edo egin nahi ez nuenean, aitzakia bezala erabiltzen nuen “ezina”. Zenbait aldiz sinesten nuen benetan ezin nuela, nire ahalmenetan ez nuelako sinesten.

Nagusitzean, segitu ohi dut gauza bera egiten, gehienetan ohartu gabe segitzen dudala egiten umetan egiten nuena. Zenbat aldiz zorte txarrari, patuari, hurkoari edo bizitzari, besterik gabe, leporatzen diet nire “itxurazko ezintasuna”!

Jaioberritan umea amaren luzapena edo parte bat sentitzen da. Ez du bere burua banakako edo indibiduo gisa ikusten. Zenbait hilabeteren ondoren, hasiko da amarengandik banatzen eta beste bat bezala sentitzen. Benetako heldutasuna iritsiko da amarengandik emozionalki guztiz bananduko garenean eta geure buruaren ardura oso-osoa erabat hartuko dugunean.

Maiz kontsultara etortzen direnei minak eta kexak entzuten dizkiet. Zorigaizto hau gertatu zait, nire bikotekideak hau egiten dit, nire nagusiak horrela eta horrela hartzen nau eta amaigabeko kexa-zerrenda bat aipatzen didate. Era berean emozio mingarriak ere deskribatzen dizkidate, “*haserretu nintzen berarekin honengatik edo hargatik*”, “*mindu ninduen bere jarrerak*”, eta abar. Biktima bezala aurkezten dute haien burua. Bikotekide, guraso, senide, enpresa, erakunde, gizarte, zorte txarra, patua, bizitzaren biktimak... Badirudi mundu honetara sufritzera etorri direla. Eta sinesten dute horrela dela. Gainera besterik ez dutela merezi sentitzen dute haien barru-barruan.

Baina, non dago haien ardura? Erresponzabilitatea? Errua hitza erabiltzen dute sarritan. Besteen errua da, horrela sentitzen badira.

“Bakoitzak sentitzen duena, bere ardura da. Ez beste inorena”



Baina bakoitzak sentitzen duena, bere ardura da. Ez beste inorena. Gure larruaren azpian gertatzen den guztiguztia gure ardura da. Ez beste inorena. Haur jaioberritan ama eta ni bat eta bakarra ginela sentitzen nuen eta, ondorioz, nik sentitzen nuena, amarena bezala har nezakeen. Baina amarengandik banatzea hau da, nire buruaren ardura osoa hartzea. Eta honek esan nahi du nire ekintzen, pentsamenduen, sentimenduen eta emozio guztien arduraduna ni neu naizela erabat sinestea. Nire barruan gertatzen dena, nik sortutakoa da. Inork ez nau haserre

jartzen. Ni jartzen naiz haserre. Inork ez nau beldurtzen, nik neuk sortzen dut beldurra nire barruan. Jakina, gertatzen, ekintza edo hitz batzuen aurrean horrela edo hala sentituko naiz baina sentimendu hori nik sortutakoa izango da eta nik kudeatu ahal izango dut. Berdin neure bizitzaren arlo guztietan.

Umetan ardurarik hartu nahi ez genuenean besteari, bizitzari, nolabait esateko, leporatzen genion sentitzen genuena, eta uko egiten genion ardura hartzeari. Erraza da biktimaren paperean erortzea. Umetan horrela sentitzen ginenean, sarritan norbaiten kontsolamendua edo begirada jasotzen genuen eta ohitu ginen zirkulu horretan erortzen. Aginduek eta zigorrak, ez ziguten laguntzen ardurak hartzen, kontrakoa baizik, barruan errebeldia, haserrea eta mina pizten baitziren. Horrela iritsi gara adinez nagusi izatera, adinez idatzi dut, jarrera askotan ume izaten segitzen dugulako. Umeak edo gutxienez ez gara guztiz helduak izango, gertatzen zaigun guztiaren ardura hartzen ez dugun bitartean. Behin eta berriz sufrimendu berean erortzen garenean, eroso ez bada ere, ezagutzen duguna da eta horregatik bertan segitu nahi dugu. Sarritan esaten diet nire kontsultara etortzen direnei “*ez duzu zure ardura hartu nahi, uko egiten diozu aukera horri*”. Onartzen didatenean horrela dela, hasten dira ikusten aukera badagoela sufrimendu edo zorte txar horretatik ateratzeko. Onartzen dute- nean “ezin dut” “ez dut nahi” esan nahi duela, aukera dezakete zer egin. Orduan, maiz ezina posible bihurtzen da. Gu geu gara barruan gertatzen zaigun guztiaren arduradunak. Gu geu gara geure bizitzaren jabeak eta benetan, ezina iristen denean, kanpoko laguntzarekin posible bihur daiteke. Orduan momentua iritsi da laguntza eskatzeko baina, beti ere, geure ardurak guk geuk hartuta.



Errepublika eta gerra zibila

Eibarren Bigarren Errepublika aldarrikatu zen 1931ko apirilaren 14an, Estatuan baino ordu batzuk lehenago. Maiatzean Eusko Ikaskuntzak hegoaldeko lau probintzientzat Autonomia Estatutu bat aurkeztu zuen. Hasieran Alderdi politiko guztien babesak jaso zuen, baina gero, EAJ eta Karlisten arteko tirabirek blokeo egoera batera eramane zuten ekimena. Egoera hau gainditzeko beste proiektu bat aurkeztu zen, honek Alderdi ezkertiarren eta EAJren babesak jaso zuen baina Nafarroa eta karlistak kanpoan utzi zituen. 1933an, erreferenduma egin zen proiektu berri hau onartzeko. EAJ garaile atera zen eta joera hau islatu zen Espainiako kongresurako hauteskundeetan jeltzaleek izandako arrakastan.

1934an, nahiz eta errepublikako gobernu eskuinaren esku egon, alkate euskaldunek hauteskunde probintzialen eta kontzertu ekonomikoaren aldeko ekimena bultzatu zuten. Abuztuaren 12an "Euskal Udalen Batzordea" sortu zuten. Alkate hauek askok atxilotuak izan ziren debekatutako hauteskundera deitzeagatik. Guardia Zibilak erreprimitu zuen ekimen hau, mugimendu separatistatzat definituz.

1936ko otsailean Espainiako gortetako hauteskundeak egin ziren. Fronte Popularrak irabazi zituen ustekabean

**“Euskaldunak garen
heinean gure kontakizun
propioa idatzi behar
dugu”**

eta honek eskuineko aldean hautsak harrotu zituen. Porrot honen ondoren eskuinak istiluak sortu zituen eta azkenean, uztailaren 18an estatu kolpea eman zuen. Urrian, Eusko Jaurlaritzaren babespean, Bilbon, baietsi zen Autonomia Estatutua. Hau izan zen gorte errepublikarren azken ekintza Madrilen, gorteak Valentziara eramane aurretik. Ezkerreko alderdiek gobernu autonomorako EAJri eman zioten babesa, CNTk uko egin zion gobernuan sartzeari. Gobernu honek armada propioa sortu zuen maxtinatu faxistei aurre egiteko. Nafarroako alderdi ezkertiarrek ez zioten ezetz esan autonomia estatutu honi baina eskuinaren jarrera guztiz kontrakoa izan zen. Badaezpada, Nafarroako gizarteari inoiz ez zitzaion galdeketa egin honen inguruan.

Memoria historikoan errotua dago euskal gizartearen gehiengo bat ban-

do errepublikarraren alde zegoela, eta gerra zibilean, eta historian zehar bere nortasun historikoa mantendu nahi izan duen herri baten parte dela. Nahiz eta, 40 urte bitarte diktadura eta faxismoa hau ezkutatu nahi izan duen eta erakunde ofizialeatik mezuak kontrakoak izan. Herriaren memorian eragina du, gehien bat, jasandako sufrimendua. Hainbesteko errepresioak ez zuen zentzurik izango gizartearen gehiengo bat erakunde frankista berrien alde egon balitz eta historiografiaren alde batek kontatzen duena egia balitz. Gure aiton-amonek eta aita-amek pairatu zuten errepresioa, identitatearen ukazioa, euskararen debekua, jazarpen erlijiosoak, askatasun politiko eza... jarrera bortitz hauek sortutako sentimenduek hurrengo belaunaldietan oraindik diraute, nahiz eta zuzenean ez sufritu egoera lazarri horiek.

Aipatutako memoria hau ofizialtasunetik bidalitako mezuak baino indartsuagoa da. Historiak eman behar dio memoria honi forma eta euskaldunak garen heinean gure kontakizun propioa idatzi behar dugu. Euskal Herrian gizarte eraketa, egitura politikoak eta identitatea ulertzeko beste modu bat dagoela azpimarratuz eta frogatuz. Finen, gurea beste historia bat dela esanez munduari.

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Iñigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta
Diario de Navarra
Korrespontsala**

948513056
699179437

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com



“Parrandan ibili baino taula gainean nahiago”

Joseba Oreja beteluarrak musika munduan murgilduta daramatza azkeneko zortzi urte hauek. 2008an Gabezin taldea sortu zuen koadrilako lagunekin batera eta egun taldean jarrai-tzeaz gain DJ bezala ere aritzen da.

Aralar Musika Eskolako ikasleak ziren Andoni Urrestarazu (saxofoia), Ibai Sorroa (baxua), Mikel Azpiroz (gitarra), Beñat Pellejero (akordeoia) eta Joseba Oreja (bateria eta ahotsa). Bostak elkarrekin joaten ziren talde instrumentaleko klasera eta hortik taldea sortzera animatu ziren. Josebarekin batera abesten arituko zen norbaiten faltan ondoren Ainhoa Zabaleta goizuetarra batu zen taldera. Joseba: *“2008an hasi ginen entseatzen eta aurreneko kontzertua Beteluko festetan eman genuen. Horrela ia konturatu gabe beste herri batzuetatik deitu eta kontzertuak ematen hasi ginen”*. Beteluarrak ordea betidanik izan ditu gustuko plaza taldeak eta bateria jotzea, *“txikitan kioskoaren ondoan jarri ohi nintzen musikariei begira”*.

Taldea sortu eta gutxira, 2011n DJ lanean hasi zen, Dj Txoko izenaren atzean. Ordura arte Oskar Estanga, Dj Bertso, ibiltzen zen inguruan musika jartzen eta berak animatuta hasi zen. Joseba: *“Oskarrek taldearekin han eta hemen ikusten ninduen eta behin bera bezala ibiliko ote nintzen galdetu zidan. Orduan ezetz esan nion, baina ondoren berak utzi zuenean berriz ere animatu egin ninduen, nola egiten zuen azalduko zidala eta abestiak ere utziko zizkidala... Bi ezkontza eman zizkidan, lehenengoa Ayestaran Hotelean izan zen eta gustua hartu nion. Musika asko gustatzen zait eta baita jendearekin tratua izatea”*. Dena den, Josebak ez du bere burua DJ-tzat, bera musika jarri eta giroa alaitzeaz arduratzen da.

“Tronpeta eta tronboiarekin estilo ezberdineko abestiak jotzeko aukera handiagoa dugu orain”

Duela hiru urte, Gabezineko hiru kidek taldea utzi eta musikari berriak sartu ziren...

Bai, batzuek utzi egin zuten eta hasierako hiru baino ez gaude. Orain zazpi kide gara: Beñat, Ainhoa, ni, Mikel Sagastibeltza leitzarra (gitarrekin) eta Iruñeko Iñigo Nieto (baxuarekin), Nikolas Leonardo (tronboiarekin) eta Xanti Etxeberria (tronpetarekin).

Udan bakarrik ematen dituzue kontzertuak edo ikasturtean zehar ere ibiltzen zarete?

Ikasturtean zehar nahiko zaila egiten zaigu, lanean gabiltza batzuk eta besteak ikasten Bilbon, Iruñean... Zaila da, baina saiatzen gara denbora hartzen asteburuetan entseatzeko eta tarteka kontzertuak emateko ikasturtean zehar ere.

Non entseatzen duzue?

Hemen, Betelun, Aralar Musika Eskolak gela bat utzi zigun hasieratik eta hortxe. Egia esan, musika eskolari esker jaso genuen orain dugun oinarria abestiak ikasteko etab.

Errepertorioa pixka bat aldatzen joango zarete urte bate-tik bestera...

Bai. Urtean gutxienez hamar edo hamabost abesti berri sartzen saiatzen gara. Gainera, orain tronpeta eta tronboiarekin musika estilo ezberdineko abestiak jotzeko aukera handiagoa dugu. Eta horretan saiatzen gara, plaza taldeen abesti tradizionalaz gain bestelako abestiak ateratzen.

Eta zein da zuen lan eremua?

Hasieran gehien bat Nafarroan ibiltzen ginen, Baztan, Malerreka eta inguru horretan kontzertu asko eman genituen. Orain hemen inguruan, Aurizberri aldean, Gipuzkoan eta Bizkaian ere hasi gara zenbait kontzertu ematen.

Eta zer gustatzen zaizu gehiago taldearekin ibiltzea edo DJ bezala aritzea?

Nik taldearekin gehiago gozatzen dut, beste giro bat da. Herri batera iritsi, elkarrekin prestatu, afaldu... DJ bezala hemen inguruan ibiltzen naiz, ezkontzetarako eta festa edo ospakizunetarako deitzen didate eta hori ere polita da baina ezberdina gutziz.

baina gauza asko ikusten ditugu... [Kar, kar, kar].

Abestu eta bateria aldi berean jotzea zaila al da?

Txikitatik hala ohitu nintzen, musika eskolako kontzertuetan ere beti jo eta abestuz ibiltzen nintzen eta orain jada esfortzurik egin gabe ateratzen zait.



Hitz egitea ere gustatzen zaizu...

Bai, azken batean gu jendea alaitzeko gaude eta zuk festa giroa transmititu behar diozu jendeari, bestela alferrik da jotzegtatik jotzea. Niri naturalki ateratzen zait eta gustuko dut jendea giroan ikustea.

Gabezin izena nondik sortu zenuten?

Niri bururatu zitzaidan, beste gustatu eta horrela gelditu zen, baina ez dakit nondik datorren, batzuek musika gabe ezin edo gauzez ezin esaten dute...

Eta abesti propioak sortzen al dituzue?

Bai, batzuk baditugu baina gutxi, mexikarrak batez ere. Ainhoa dugu horretan artista!

Anekdotarik?

Ba denetatik izaten da. Pasa izan zaigu jendea taula gainera igotzea abestera eta haiei ezin jarraituz ibiltzea edo herri batzuetan plaza ia hutsik

egotea eta guretzat entsegu bat balitz bezala. Herri txikietan egia da plazak betetzea errazagoa dela.

Oroitzapen politen bat?

Arbizun egin zen Nafarroa Oinez oso gustura aritu ginen, baita Lesakako Sanferminetan ere, horrelako plazak bereziak izaten dira. Baina herri eta jende asko ezagutu dugu eta hori oso polita da.

Eta parrandarik egiten al dituzue kontzertuen ondoren?

Ba kanpotik baietz eman arren, oso gutxi, hemen inguruan ez baldin bada... Baina egia esan, nik nahiago dut parrandan ibili baino eszenatoki gainean aritu.

Taula gainetik gauza asko ikusten dira?

Bai, bai eta jendea ez da konturatzen,



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



Elene Aguirrezabala Iriarte
Irailaren 15ean 3urte
Zorionak pittin!!! Oso ondo pasa
eguna bihotza. Muxu pottolo bat
aitatxo eta amatxoren partez.

Libe Garzia Azpiroz
Abuztuak 9, urte 1
Zorionak Libetxo!!
Urte bat zure alaitasunaz
gozatzen. Muxu bat pixpaju!!




Agustin Saralegi
Irailak 2, Gaintza
ZORIONAK AITATXO!!!
Pozez zorutzen gaude zure urtebe-
tetzea delako eta horregatik festa
handi bat egingo dugu Iturrisoro
etxean. Asko maite zaitugu.
Amatxo, Irune eta Ekiñe.

ZORIONAK ON-ONAK AGUSTIN
ETA URTE ASKOTARAKO!!
Egun zoragarri bat igaro dezazun
opa dizugu, merezi duzu eta.
Besarkada handi bat. Zure Lekun-
berriko lagunak.



Agurtzane Altuna Otamendi
Irailak 22
Zorionak munduko amatxo politte-
nari. Muxu asko!!!! Egoitz, Eneko,
Itxaso eta Iñigo.



Amets Martinikikorena
Irailak 23, 9 urte
Zorionak Amets!!!! Ongi
pasa zure eguna eta asko
disfrutatu.
Muxu bat Araitz, Aita eta
Amaren partez.



Amaia Huarte Martijak
irailaren 18an urteak
betetzen ditu. Zorionak!

Unai Garmendia Huarte, irailaren
21ean, 13 urte betetzen ditu. Urte
askotarako, Gastesitarren partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

AMARU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGZIAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola

>> Euskara zerbitzua

Gurasogaiak, gurasoak eta aisialdia

Haurren aisialdiarekin eta bereziki gurasoen intereserako izan daitezkeen atariak aurkezten dizkizuegu oraingoa.

Sabeletik mundura: www.sabeletikmundura.eus.

Gurasotasunean bidelagun izateko asmoarekin egindako gunea. Haurdunaldi-aurre, haurdunaldi, erditze, erditze-oste, edoskitze, soinean eramate eta abarri buruzko informazioa eta aholkularitza.

Ttiklik: www.ttiklik.com

0-12 urteko umeen gurasoei eta hezitzaileei zuzendutako esparru eta elkargunea.

Argiaren mendean. Euskarazko ziber-tribiala: www.argia.eus/tribiala

Jolastu online Argiaren mendean tribialean, gainerantzean ezagutuko ez zenituzkeen munduko bazterretako euskaldunekin batera.

Zernola: www.zernola.net

Haurrentzako esperimenduak, bi-txikeriak eta hainbat joko (hitz gurutzuak, puzzleak, rally-ak...).

Karaokea euskaraz: www.txantxangorria.eu

Mila abestitik gora karaokean euskaraz abestu eta ondo pasatzeko.

Telesailak eta pelikulak euskaraz: www.marrazkiak.euskal-encodings.com

Helbide honetan ehunka marrazki bizidun eta bestelako film daude euskaraz.

Marrazki bizidunak. ETB3: www.eitb.eus/eu/hiru3/marrazki-bizidunak

ETB3ko marrazki bizidunak online ikusteko aukera.

Bularretik mintzora: www.bularretikmintzora.org

Bularretik mintzora proiektua haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago, eta bere helburu nagusia da

0-6 adin tarteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta haien hezitzaileekin, beren ingurune naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian, hain zuzen. Webgunean, egitasmoari buruzko informazioaz gain, haurrentzako ipuinak eskura daitezke.

Aisia: www.aisia.net

Urtxintxaren proiektua. Atsedenaldiak modu positibo batean bizitzeko, ideiak eta proposamenak eskaintzeko asmoa du gune honek. Haurrekin egiteko zenbait jolas azaltzen dira, besteak beste, azalpen, bideo, musika, jolasean zehar erabili beharreko esamoldeen hiztegitxo eta abarrekin.

Katxiporreta: www.katxiporreta.com

Bideoak, jolasak, denda, agenda eta baliabide gehiago Pirritx, Porrotx eta Marimototsen zaleentzat.

Irrien lagunak: www.irrienlagunak.com

Irrien lagunak klubaren gunea. Zorion agurra, lehiaketak, deskargak, jolasak eta gehiago etxeko txikientzat. Hezitzaileentzako txokoa ere bai.

Txiki: www.txiki.net

Euskal umeen z(d)ibertxokoa. Ipuinak, abestian, jolasak...

Emangiltza: www.emangiltza.com

Euskara familia bidez transmititzeak duen garrantziaz gurasoak jabetzeko eta horretan laguntzeko gomendioak eta baliabideak.

Etxegiroan: www.etxegiroan.com

Haurrentzako ipuinak entzungai.

Guraso: www.guraso.com

Gurasoen premiak asetzeko gunea. Zure kezkei erantzunak, albisteak, agenda, kolaborazioak, haurrekin aisialdian egiteko ibilaldiak eta planak, eta abar.



Lekunberriko jaietako kartel lehiaketa

Urriaren 8tik 12ra bitarte ospatuko dituzte Pilareko jaiak Lekunberri eta urteroko kartel lehiaketa antolatuta du jai batzordeak. Lanak irailaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira Mitxausenea kultur etxean. 14 urtetik gorako lehiaketako irabazleak 200 euro jasoko ditu eta 14 urtetik beherako lehiaketako saridunak marrazteko materiala. Horra hor lehiaketan parte hartzeko bete beharreko oinarriak:

- Kartelak A3 tamainako paperean aurkeztu beharko dira.
- Kartel bakoitza gutun-azal baten barruan aurkeztu beharko da. Kanpoaldean edozein hitz idatzi beharko da, egilearekin identifikatzen ez den hitza. Gutun-azalaren barruan, A3 kartelaz gain, paper batean egilearen datuak idatzi beharko dira. (Izen-abizenak, telefono zenbakia, posta elektronikoa eta helbidea).
- Zuria eta beltzaz gain, bi kolore soilik erabili ahalgo dira.
- Kartelean ondorengo testua agertu beharko da: Lekunberriko jaiak 2015. Urriaren 8tik 12ra - del 8 al 12 de Octubre. Antolatzailea: Lekunberriko Jai Batzordea. Informazio gehiago: 948 60 45 82 edo mitxausenea@yahoo.es



Lekunberriko gotorlekuaren eta Gorritiko gazteluaren historia bizirik mantenduz

30 lagun inguruk parte hartu zuten joan den abuztuaren 23an Gorritiko Gaztelura egindako martxan. Azken hiru urteotan Nafarroa Bizirik taldeak antolatzen zuen mendi-irteera hori, baina dagoeneko talde bezala lan egiteari utzi dionez, aurten Ondare Kultur Taldeak hartu du lekukoa.

Memoria historikoa bizirik mantentzeko beharraz oharturik aurten lehenengoz Lekunberriko gotorlekua eta Gorritiko gaztelua lotu zituzten mendi-martxan. Larraungo udaletxetik irten eta Lekunberriko malkorrean egin zuten lehenengo geldialdia. Zenbait ikerketaren arabera, Gaztelak Nafarroako Erresuma bere egin baino lehen bertan zegoen gotorlekuari buruzko zenbait azalpen jaso zituzten Inma Etxarriren eskutik eta handik Gorritira joan ziren. Gaztelua zegoen tokian ekitaldi nagusia egin ondoren Gorritin bertan bazkaldu zuten.



urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia RIOJA
GALBURU
Tel: 948 50 40 42 - 609 720 313
Aldezahara, 50 - 21570 LEKUNBERRI (Nafarroa)

IORTIA
Juanjo Gaité García
Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Tel. 948 467 603
Altsasu
Tel. 948 604 804
Lekunberri
www.clinicaiortia.net
HORTZ KLINIKA
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA

“Koadrilako lagun batek nire izena eman zuen”



ARG.: Aner Ansoreña

Leire Betelu lekunberriarrak Kantu Giro programan parte hartu du. Leire: *“Telefonoz deitu ninduten nire koadrilako batek nire izena eman zielako, eta egia esan oso sorpresa polita izan zen”*. Abuztuaren 3an grabatu zen Lizarrako jaietan eta handik astebetera bota zuten telebistan.

Leire: *“Oso esperientzia polita izan zen, abestea asko maite dut, eta eszenatoki baten gainean disfrutatzeak aukera ez nuen galdu nahi. Hamaika urterekin “Egin kantu” saioan parte hartu nuen, eta berriro ere horrelako esperientzia bat bizitzeko aukera aurkezten bazait ba aprobetxatu egingo dut”*.

Memoria lantzeko tailerra

Lekunberri-Larraungo Eguneko Zentroan Memoria Tailerra eskainiko dute irailaren 17tik aurrera. Ostegunero, arratsaldetako 17:00etan Tania Camino psikologoak memoria lantzeko eta hobetzeko ariketak zuzenduko ditu. Kognitiboki ongi dauden herritar guztiei zabaldua dago. Tailerra La Caixa Fundazioak babesten du.

Eman izena lehenbailehen 616 39 70 44 telefono zenbakian.

Ia hiru urteren ondoren Mailope Gazte Asanbladak bere ibilbidea eten egin du

“Gauza onek sarri, ez omen dute luzaro irauten eta Mailope Gazte Asanbladari ere iritsi zaio agur esateko ordua. Bidea motza bezain oparoa izan da, gauza mordo bat egin eta antolatuz: euskal selekzioaren partida ikustera joan, eguberrietan etxez etxe kantari aritu, dokumentalak, ikastaroak, pilota txapelketak, gazte egunak, kinto egunak, jolasak... urte benetan zoragarriak izan dira eta ziur elkarrekin beste hainbat bizipen dastatuko ditugula, baina etorkizunak erakutsiko digu nola. Bitartean, segi beti bezain kritiko, aktibo eta euskaldun!! Eskerrik asko bidean lagun izan zaituztegun guztiei eta hurren arte!!”

Mailope Gazte Asanblada.

Kirol eskaintza berria

Irailaren 15etik 19ra kirol jarduerak doan probatzeko aukera eskaintzen du Kirol Mankomunitateak. Ate irekiak eskainiko dituzte Plazola kirolgunea bertan burutzen diren jarduerak ezagutzera emateko. Eta irailaren 26an paelлада eta musika eskainiko dute bertan. Sarre-rako matrikulan %100 deskontua izanen dute 2013,2014 eta 2015ean abonaturik egon ez diren abonatu berriek. Eta %50eko deskontua 2013,2014 eta 2015ean abonatutakoentzako. Informazio gehiago: 948 507 377 edo plazola-kirolgunea@gmail.com.



“Hizkuntzan ez ezik, harremanetan ere irabazten duzu”

Asun Olaetxea eta Ainhoa Iriarte



Joan den ikasturtean Asun Olaetxeak eta Ainhoa Iriartek Mintzakide programan parte hartu zuten astean behin elkartu eta euskaraz egiteko. Aurten ere jarraitzeko gogoz daude.

Zer da zuentzat Mintzakide?

Asun: Niretzat euskara praktikatzeko eta ikasteko aukera paregabea da.

Ainhoa: Nik akaso Asunek baino aukera gehiago dut nire eguneroko bizitzan euskaraz egiteko. Hala ere, iruditzen zitzaidan herrian bertan jendearekin hizkuntza ohiturak aldatzen hasteko aukera bat izan zitekeela. Izan ere, ni euskaldun zaharra izanik ere, jende askok ohitura dauka nirekin gaztelaniaz egiteko.

Zer egiten duzue?

Asun: Hitz egin! Besterik ez dugu egiten! Astero ordu betez elkartzen gara herriko tabernan kafe bat hartzen dugun bitartean. Edozein gairen inguruan aritzen gara, normalean gure eguneroko kontuei buruz. Egia esan, oso azkar pasatzen zaigu denbora! Gainera, malgutasun handia dago; egunen batean nik ezin badut, Ainhoa beti dago prest ordua edo eguna aldatzeko.

Ainhoa: Bai. Gainera, asteroko hitzorduez gain, urtean zehar hainbat ekintza antolatzen dira eta bertan ere jende berria ezagutzeko aukera izaten duzu. Otsailean, esaterako, bitxigintza tailerlean hartu genuen parte. Bertan kafe-kapsulekin bitxiak nola egiten diren ikasi genuen eta oso ongi pasatu genuen.

Uste duzue horrelako ekimenak beharrezkoak direla?

Asun: Bai, nik uste dut oso garrantzitsuak direla, eta Betelun batez ere. Egia da orain gero eta jende gehiagok hitz egiten duela euskaraz baina, adinaren arabera ere badaude aldeak. Nire adineko askok, adibidez, gaztelaniaz mintzatzeko joera handia dutela esango nuke.

Ainhoa: Nire ustez, oso garrantzitsuak dira horrelako egitasmoak. Ia denok dakigu euskaraz hemen, baina gaztelaniaz

egiteko joera dago eta, askotan, izugarri kostatzen zaigu hizkuntza ohiturak aldatzea. Horrexegatik, uste dut horrelako praktikak oso positiboak direla. Adibidez, Asun eta biok, lehen ez bezala, orain beti euskaraz egiten dugu geure artean.

Zeuen hizkuntz ohiturak aldatu direla esango zenukete?

Asun: Bai, dudarik gabe. Nik txikitan ikasi nuen euskara, baina gero galdu egin nuen. Semea jaio zenean, berriz hasi nintzen euskara erabiltzen baina heldutu ahala, gero eta gehiago kostatzen zitzaidan euskaraz egitea; zenbait gauza ez nekizkien nola esan, hiztegitira jo behar nuen etengabe... Halere, poliki-poliki hizkuntza berreskuratu dut eta orain, normalean seme-alabekiko harremana euskaraz da. Nik argi daukat: euskaraz bizi nahi dut eta horretarako ahalegin guztia egingo dut.

Ainhoa: Ni ia %100 euskaraz bizi naiz: eskolan lan egiten dut, lankideak euskaldunak dira, etxean beti euskaraz egiten dugu, familia euskalduna dut... Hala ere, gure hizkuntza hau zapaldua izan da eta oraindik ere, euskararen erabileran asko dago egiteko. Uste dut, gainera, jendea gogotsu dagoela euskara ikasteko eta erabiltzeko.

Nola animatuko zenukete jendea Mintzakiden parte hartzera?

Asun: Nik inguruko jende guztia animatuko nuke parte hartzera. Ni, behintzat, oso gustura nabil eta asko ikasten da.

Ainhoa: Bai. Gainera, astean ordu bete besterik ez da; gure kontuez hitz egiten dugu eta terapia moduko bat ere izaten da askotan. Hizkuntzan ez ezik, harremanetan ere irabazten duzu, beti baita interresgarria jende desberdinarekin solasean aritzea. Azken batean, neuk ere asko ikasten dut.

Kargu aldaketak

Ruben Goñi izan da azken urteotako eskualdeko Kirol Mankomunitateko kirol teknikaria. Joan den hilean Nafarroako Gaztedia eta Kirol Institutuko Zuzendari izendatu zuten. Pruden Induráinek betetzen zuen orain arte kargu hori.



Bestalde, Maitena Ezkutari Nafarroako Turismo eta Merkataritzako Zuzendari Nagusi izendatu dute. 1995tik Plazaola Partzuergo Turistikoko gerentea zen. Zorterik onena bioi bide berri honetan.



Larraun Bizi kamisetak salgai

Larraun Bizi taldeak kamisetak jarri ditu salgai Arkupen eta Kantinan. Gainera e-postaz edo telefonoz ere egin liteke eskaera: larraunbizilarraun@gmail.com edo 640602301. Eskuratu zeurea!



Eskerrik asko Haize Txulo

50 euro inguruko diru laguntza eman diote Gorritiko Haize Txulo Elkarteko bazkideek gure aldizkariari. Mailoperen egoera ekonomiko larriaz oharturik, iazko udazkenean eltzetsu bat jarri zuten gorritiarrek herriko elkartean. Estibalitz Gastesi: *“Denok gustura irakurtzen dugu Mailope eta elkarteko harpidetzaz gain beste ekarpen txiki bat egin genezakeela pentsatu genuen”*.

10 urte lur azpia arakatzuz

Hamar urte bete ditu aurten Astizko Mendukilo Kobak. 215.000 bisitari baino gehiago pasa dira dagoeneko bertatik. Hamaika jarduera eta bisita berezi antolatu dituzte geroztik eta aurten ezin bereziagoak izaten ari dira. Abuztuaren 29an Akelarre bat egin zuten, belaunaldi belaunaldi sorginkeria kasuz kontatutako istorioak kontutan hartuz. Irailaren 19an Hutsun txalaparta taldeak emanaldia eskainiko du. Txalapartak historian zehar izan duen garapena azalduko dute ingurumen naturalaren ezagutzarekin uztartuz.



aek
euskara praktikoa

Eman izena

LARRAUNGO AEK
Euskara ikastaroak

MAILA GUZTIAK
GURASO TALDEA 5/ 6 ordu astean
EGA azterketa prestatzeko ikastaroa
Taldea edo autoikaskuntza

Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak

Aralar kalea 5, behea, Lekunberri
948 60 47 04 / 607 622 102 · larraun@aec.eus



“Familia trantze gogor horietan ikustera ez zara ohitzen”

- 18 -



Lekunberrin bizi den leitzar honek, urte eta erdi daramatza itxuraz erakargarria egiten ez zaigun lanpostuan, baina denok izango gara bere bezero, lehenago edo beranduago. Gure beilatokietan egiten du lan eta zereginen artean, hil ondoren bete beharreko paperak kudeatzen ditu. Heriotza bizitzaren azkeneko parte izanik, normaltasunez hartzean dago gakoa.

Nolatan hasi zinen beilatokian lanean?

Duela 13 urte Leitzako beilatokian hasi nintzen lanean. Leitzan norbait behar zuten baina delegatu bezela, hau da; ez nuen beilatokiko lana berez egiten. Malerrekatik zeramaten dena eta herriaren heriotzaren bat baldin bazegoen, paperak egiten eta garbitzen laguntzen nien. Mundu horretan sartu nintzen, pixkanaka gorputzak jasotzen laguntzen ere hasi nintzen. Haurdun gelditu nintzenean utzi nuen, eta duela urte eta erdi hasi naiz berez ehorztetxeko lana egiten.

Zein da zure zeregina?

Deia ospitaletik edota etxetik jaso dezakegu. Etxetik deitzen digutenean, hildakoa jaso, gorpua prestatu eta familiarri zerbitzu guztia egiten diegu, hau da; erregistrarako paperak bete, eskelak, loreak enkargatu, hilkutxa aukeratu, kokatu... Eta hurrengo egunean hiletara eramán, herriaren arabera hilerria ere... Zerbitzua beti antzekoa izaten da. Gure lanak nolabait hiru atal ditu: paperak betetzea, hildakoa txukuntzea eta garraiatzea.

Lanpostu honetarako zerbait berezi eskatzen da?

Ez bereziki. Agian ni Leitzan poliki-poliki hasi nintzelako ez dut ezer behar izan... Hala ere prestakuntza jasotzen dugu gero: esaterako, psikologikoki tailerrak, familiarekin nola jokatu ikasteko, nola hitz egin... Gehienak, zorionez, bizi-legezkoak izaten dira, baina badira kasu oso gogorak ere. Gazteak direnean, istripuz hidakoak edota bere buruaz beste egiten dutenean.

Nola dago antolatuta Irache beilatokia gure inguruan?

Gure taldea Malkorrate da, eta Leitza, Betelu, Lekunberri, Irurtzun eta Altsasu-Sakanaz osatuta dago, duela urte batzuk Leitza, Betelu eta Lekunberri Malerrekatik eramaten baziren ere. Bost beilatokiak bertan daude. Denok eskualde guztietan egiten dugu lan, hau da; ez naiz beti Lekunberri edo Betelun aritzen. Binaka egiten dugu lan eta beharren arabera leku batera edo bestera joan behar izaten dugu, ibiltariak baikara. 24 orduko txandak egiten ditugu eta egutegi baten arabera gaude antolatuta. Gauean normalean ospitalean hiltzen baldin bada hurrengo egunean jaso eta tramitazioa egiten hasten gara. Etxean gertatzen bada, norma-



Beilatokia gorpua bisitatzeko leku aproposagoa da etxean baino, espazio aldetik zabala delako batik bat.

“Garai batean heriotza egun baino naturaltasun gehiagorekin hartzen zen”

lean gauean bertan jaso eta hurrengo egunean zerbitzu guztiak egiten dira.

Gerta daiteke egun berean hildako bat baino gehiago izatea...

Bai, lau ere posible da egun batean. Nik ulertzen dut hildakoekin ohituta nagoela baina familiakoak ez. Zain egon behar badira urduri jartzen dira, ez dute ulertzen ezin garela, demagun, 8 lagun hemen egon bada ez bada norbait hiltzen baldin bada, zain. Bat Altsasun gertatzen bada eta beste bat Betelun, langile berberak gaude eta orduan bai tokatzen zaiela itxarotea eta hau askotan gertatzen ez bada ere, behin baino gehiagotan gertatu da. Jendea urduri jartzen da etxean hildako bat dutelako, baina horregatik beragatik lasai hartu behar da. Inportanteena, lasai hartu, deitu, eta ezin bada momentu horretan joan, lasai, ahal duenean joango baita. Izango balitz larrialdi bat hil edo bizikoa bai, baina kasu hauetan, sufrimendua bukatuta dago. Horregatik, batzuetan familiaren bati tokatuko zaio itxaron behar izatea. Garai batean beste modu batean egiten zen hau eta heriotza naturaltasun gehiagorekin hartzen zen. Adinekoek beste lasaitasun bat dute

eta itxaron behar badute itxaron egiten dute, baina tartean gazteagoak baldin badaude, urduri jartzen dira eta gauzak lehenbailehen egin nahi izaten dute, kezka beteta. Azkenean dena berdinduz egiten da, lehenago edo beranduz.

Psikologikoki zure lanposturako indartsu egotea garrantzitsua izango da ba, ezta?

Bai, bai. Nik onerako eta txarrerako enpatia asko daukat, orduan ez dakit... Agian jakin beharko nuke bereizten langilearen eta beste aldearen artean baina ez dut balio. Azken finean, familia gaizki ikusten badut ez dut zutitu, hurbildu eta besarkada bat emateko inongo arazorik. Nire kasuan bai, sartu egiten naiz.

Lan honetan gogorrena zer da?

Jende guztiak hildakoak prestatzea dela pentsatzen badu ere, ez da hala. Oraindik gogoan dut lehenengoa prestatu nuenean zeinen arto sentitu nintzen eta nola esan zidan enkargatuak lasai egoteko horretara ohituko nintzela, baina familiaren minera ezetz. Egia da nirekin daudenean gehienak nahiko lasai egoten direla, oraindik momentuko beroan edo shock-ean daudela iruditzen zait. Esan dudak bezala, kasu ezberdinak daude, baina gehienetan azken agurra gogorra da, kutxari tapa jarri behar eta familia azken aldiz ezin agurtuz... Familia trantze gogor horietan ikusten ez zara ohitzen.

elkARRIZketa:

“Erritoak ez dira asko aldatu”

Alde on edo pozgarririk badu lan honek?

Bai, kristorena, ikusten duzulako lan onuragarria egiten ari zarela, egin beharreko zerbait. Familiak beti eskertzen du: zeinen ongi prestatu duzun, zeinen ongi utzi duzun, paper guztiak eginda... Poztasun handia ematen du, asko betetzen nau.

Azkenaldian errausketa gehiago ikusten dira. Gurean somatu da?

Herrietan oraindik ez gehiegi. Erljioak edo Elizak oraindik indar handia dauka. Eskualde honetan behintzat ez dut gehiegi ikusi. Iruñean agian gehiago baina herrietan oraindik ez. Lur ematearena gehiago gertatzen da. Bestalde, oraindik ez dut zeremonia zibilik ikusi, denak elizakoak izan dira. Noizean behin inzinerazio edo errausketak egon dira, baina ez du gure lanean eragiten.

Loreak, hilkutzak, eskelak... azkenean beilatokia negozioa bilakatu da?

Noski, negozio bat da, zerbitzu bat ematen duen enpresa bat da. Baina kontrakoa pentsa badaiteke ere, eske-



Beilatokiak hil ondoren bete beharreko paperak egiten ditu ere.

lak edo loreak gure bidez eginda ez dira garestiago ateratzen; alderantziz, guk egiten duguna zerbitzu oso bat eman familia ezertaz arduratu gabe, baina prezioak egunkariak edo loradendak jarritakoak dira. Loreak hartzeko garaian eskualdeko loradendekin egiten dugu lan. Hiri handietan hiltzen denean norbait, Bartzelona, Madril... beilatoki desberdinetako ordezkariak azaltzen omen dira bertan, putreak bailiran. Lehia dagoen lekuetan baliteke hori ematea. Baina hori ez da nire lana. Niri

deitu egiten didate eta ez naiz inoren etxean sartzen.

Nafarroan, ospitalean bi langile daude eta familiarengana joaten da, ez dute esaten zein beilatokitakoa den zein, galdetzen da eta erantzunaren arabera aukeratu ez dena atzeratu egingo da. Azken finean, bat ala bestea beharko du, beraz... Esan ere esan beharra dut, garestia izan daitekeela dena, baina merkeagoa ere egin daitekeela. Kontua da ez dugula merkeena hartzen: eskela txikiena ez, lore sorta txikia ez... Jendeak zer esango duenaren presio edo beldur handia dago. Zer inporta du lorerik ez bada jartzen?

Baina... Nik beti diot, kontzientzia lasai. Bizirik egon den bitartean ahal den guztia egin bada, hil ondorengo soberan dago.

Beilatokietara joateko joera zabaldu da erabat, baina oraindik etxeetan beilatu egiten da...

Bai, eta herrietan gehiago. Ohitura badago, eta aukera ere bada, noski. Familiak hildakoa etxean izan dezake, baina tramitazioa eta beste gauza guztiak guk egiten ditugu. Datuak babesteko legea oso-oso zorrotza da eta erabateko errespetuz jokatzeko da. Datu asko erabiltzen dira bertan, baina ez dago inongo arriskurik. Familiari datu asko eskatu behar izaten zaizkio eta batzuetan beldur edo mesfidantza puntu bat ematen die, baina datu horiek itxita eta oso errespetatuta daude. Alde horretatik lasai egon behar dira.

Zure zereginen artean hildakoa txukuntzea da.

Bai, garbitu, prestatu, pixka bat maki-



Gorpuak ongi mantendu daitezen, hotza mantentzen duten kamerak beharrezkoak dira, tumulu deiturikoak.



Beilatokiaren azkeneko lana hilotza hilerrira eramatea da.

llatu, jantzi... Horretaz ere arduratzen naiz. Familiak erabakitzen du edo bere arroparekin jantzi edo sudarioarekin jantzi (arropa zuria, hil-oihala). Hasieran gogorra izan zen, baina laugarrene-rako-edo jada ohitu egiten zara.

Ardura handia hori ere, ez?

Bai, eta tontakeria dirudi, baina ez baduzu hildakoa ezagutzen edo ezagutu baduzu oso desberdina da: ezaguna bazeu, antza har diezaiokezu, ongi dago, natural dago... baina ez baduzu ezagutzen itsu-itsuan prestatzen dut. Hala ere, gehienetan asmatzen dut. Ilea ez dakizu oso ongi nola zeraman, arrastoa, harrotua edo ez... Familia ongi badago haiei galdetu eta horren arabera jokatzen dut. Niri lan hau gustatzen zait, prestatzea. Noski, normalean gehienek denbora asko gaixo zeramaten, orraztu gabe, kamisoiarekin, makillatu gabe eta zuk orraztu, garbitu, ilea apaindu eta jantzita, lehenago zen horretara bueltatzen da. Eta familiakoak pozez esaten du, "zeinen ongi". Horregatik, eraldaketa hori ematea gustatzen zait. Hasieran uste nuen ez nintzela honetara ohituko eta orain gehien gustatzen zaidana da.

“Heriotzaren aurrean normaltasunez jokatu behar da, ezkutatu gabe”

Zertan aldatu da hiltzea?

Ez dut uste deus aldatu denik. Beilaitzen jarraitzen da, apaiza etortzen da, erresponstua, hileta, hilerrira joatea... Ez dira erritoak asko aldatu. Zerbait aldatzen bada gazteagoak direnean da, kutxa agian gurutzerik gabe, erraustea, hilerrira eraman gabe... Gure nahiak hil eta gero zer nahi dugun, bizirik garela esaten badugu hobe, familiarentzako buruhauste gutxiago.

Eta hemen gelditzen direnak?

Nirekin egoten direnean nahiko lasai daude, batzuetan harritu egiten naiz, baliteke erreakionatu gabe egotea agian. Hil eta ordu gutxitara egin behar diren gauzak dira, beraz, shock-ean bezela daudela iruditzen zait. Tanatoriotik ateratzen denean, hilerrian... orduan datoz tristurak eta une gogorrak.

Zuretzako heriotza zer da?

Ez dakit... zerbait dagoela pentsatu nahi dut, zerbait. Ez dut Jainkoagan sinisten, baina zerbait dagoela pentsatu nahi dut. Dena den, iruditzen zait ume edo jendeari heriotzaren bat inguruan izan bada, normaltasunez jokatu behar dela, ezkutatu gabe. Nire semeak lan honetan hasi nintzenean normaltasunez hasi ziren ikusten heriotza, hasieran nor zen hildakoa galdetzen zidaten, nola hil zen, familia nola zegoen... Naturaltasunez tratatuz, beste lan batzuetan bezela, zure lanaz hitz egin ez. Lagunek edo familikoek hasieran ez zuten nahi gaiari buruz hitz egitea baina dagoeneko ohitu dira; lehenago etxeetan beilaitzen zen eta umeek han ikusten zituzten gorpuak eta naturaltasun gehiagorekin jokatzen zen. Gaur egun oraindik, hildakoaren inguruko guztia tabua dela iruditzen zait. Hobe da naturaltasunez hitz egin, denoi tokatu behar zaiguna da, eta zer nahi dugun erabakitzen badugu hobe. Nik dena itxita daukat, gelditzen direnek ez dakit kasurik egingo didaten baina, kar-kar!

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
 gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
 Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Ali. Tfnoa: 609 130 555



Herri bat, festa bat

Urtero bezala sanpedroekin eman genien hasiera udako herriz herriko festei eta dagoeneko eskualdeko herri gehienek eurenak ospatu dituzte. Hala ere, oraindik sanmartinak bitarte jai giroaz gozatzeko aukera bada. Irailean Arruitzen, Baraibarren, Uitzin, Allin, Etxarrin eta Intzan ospatuko dituzte herriko festak.



Heldu nahiz gaztetxoentzako ekitaldiak antolatu zituzten Oderitzen.





Nafarroako Sega Txapelketa jokatu zen Azkaraten.



Kanflankak 202 kiloko aldeareakin irabazio zion Berekoetxeari.



Arriben, urtero bezala, herri kirolek ere euren protagonismoa izan zuten.



Errazkinen euriak ez zituen haur jolasak zapuztu. Azpirotzen berriz, giro ederrean afaldu zuen gazte koadrila honek.



Errazkindarrak bitan irabazle ataluarren kontrako desafioan.



Hirugarren Mailako Aizkolari Txapelketako kanporaketa Gorritin.

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
 Asteleheneetik larunbatera
 8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
 Igande eta Jaiegunetan
 8:00 - 14:00
 Irurtzun

SAN MIGUEL
 Taberna-Jatetxea
 Arribe
 948 51 31 34

INFORMATIKA BETELU
 ▶ ordenagailuen salmenta eta konpontzea
 ▶ sareen instalazioa eta konfigurazioa
 634 551 743
 informatika.betelu@gmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
 HIRUROK S. VETERINARIOS
 Telefono zenbakia eta faxa:
 948 50 43 31
 Lekunberri

Salmenta zuzena sustatzeko nekazari azoka

Abuztuan bigarren azoka bat ere izan zen Lekunberrin. Abuztuaren 16an, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin nekazaritza merkaturia antolatu zuen Lekunberriko Udalak Iturritak kalean. Inguruko artisau, abeltzain eta nekazariak euren produktuak saltzeko aukera izan zuten. Salmenta zuzena sustatzeaz gainera, txiki-entzako puzgarriak ere jarri zituzten eta Inaxio Perurena harri-jasotzaileak erakustaldi ederra eskaini zien bertaratutakoiei.



Natalia Azkona izendatu dute Plazaolako lehendakari

Uztailaren 23an Plazaola Partzuergo Turistikoko zuzendaritza, bazkideekin batzartu zen legegintzaldi berriarekin batera lehendakaria hautatu eta ohiko gaiak lantzeko: 2014ko kontuen itxiera, aurrekontuak, kuotak, 2015eko kudeaketa plana...



Imozko alkatea den Jose Angel Iturralde zegoen lehendakari eta batzarrean egin zen bozketara berriro bere burua aurkeztu zuen. Berarekin batera Lekunberriko zinegotzia den Natalia Azkonak ere bere hautagaitza defendatu zuen eta bozketa egin ondoren Natalia Azkona izendatu zuten Plazaola Partzuergo Turistikoko lehendakari berria.

Sagardo Eguna Lekunberrin

Irailaren 27an Sagardo Eguna ospatuko da Lekunberrin. Nafarroako zenbait sagardo ekoizleak euren azkeneko uztarekin egingako sagardoak aurkeztuko dute. Horrez gain, Baztango kirikoketalariek erakustaldia eskainiko dute eta bestelako artisauak ere parte hartuko dute.

asegurogintza



aseguru
aholkulariak

**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**

Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.



Etxebizitzaren eraikuntza
eta errehabilitazioa

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com

Oztegin kalea 2, Lekunberri

Parte hartze handia izan du aurtengo Erdi Aroko Azokak

250 lagun inguruk parte hartu zuten joan den hilean Lekunberrin egin zen Erdi Aroko Azokan. Azken urteotan baino bizilagun gehiago jantzi ziren Erdi Aroko jantziekin garaiko pertsonaia ezberdinen paperetan sartzeko. Artisau azokari dagokionez berritasunik ez da izan, urtero bezala bertara joan zirenek bitxiak, elikagaiak, sendabelarrekin egindako uken-
duak, arropa, egurrekin na-

hiz larruarekin egindako produktuak etab. erosteko aukera izan zuten, baita artisauen lana gertutik ezagutzekoa ere. Herriko plazan nekazaritza tresna tradizionalen erakusketa eta nekazaritzari lotutako lanen eta garai bateko lanbideen erakustaldiak eskaini zituzten zenbait herri-tarrek: sokak egiten, artilea lantzen...

Azken aldietan be-

zala, dantza emanaldiak eta antzerkia ere ez ziren falta izan.

“El txikito Nicolás” antzezlanaren interpretatu zuen herri-talde batek. Mikel Mikeok sortutako gidoia erabili zuten horretarako eta ehungintzako merkataritaren baten istorioan oinarritu zen.

H o r r a hor egunak utzitako irudiak.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Ibilbide berrituarekin dator Plazaolako Maratoi Erdia



Irailaren 20an Plazaolako Maratoi Erdiaren IX. aldia egingen dute. Aurtengoan ibilbide berria proposatu dute antolatzaileek. Egun horretan bertan, Leitzan Talo Eguna ospatuko dela aprobeztatuz, Mugiron hasi eta Leitzan izango du helmuga lasterketak.

21 kilometro izanen dira guztira. Dagoeneko izen emateko epea zabalik dago. Animatu eta eman izena www.kirolprobak.com atarian.



Nesken pala eskolan eta esku pilotan izen emateko epea zabalik

Larraungo Pilota Elkartek esku pilotan eta nesken pala eskolan parte hartzeko deialdia egin du. Animatu eta eman izena larraunpe@gmail.com e-postaren bidez edo 629436143 telefono zenbakian.

Informazio gehiago: www.mendizmendi.com
948 604 545
kirolmank@gmail.com

Aresoko VIII. Mendi Martxa

Irailaren 6an goizeko 08:00etan Aresoko plazan izanen du hasiera Aresoko Mendi Martxa. 21 kilometro izanen dira guztira, 1.200 metroko desnibelarekin: Aresotik irten eta handik Ulizarrera, Urkita, Pagozelai, Guratz eta berriro Aresora. Eguerdian parte hartzaile guztientzako paella eta sagardoa izanen da Aresoko plazan. Egunean bertan, goizeko 07:00etatik 07:45era izen emateko aukera egongo da 15 euroren truke. Informazio gehiago: www.mendizmendi.com, 948 604 545, kirolmank@gmail.com.

Herriz herri jokatu dira Larraungo Pilota Goxua partiduak

Hamabi bikotek eman dute izena Larraungo Pilota Goxua txapelketan eta dagoeneko lehenengo partiduak jokatu dituzte. Partiduak astebururo herri ezberdinetan jokatu dira irailan zehar. Finalerdiak urriaren 3an izango dira eta urriaren 8an finala jokatu da. Agendan (31.orr) ikusgai iraileko partiduen aurreikuspena.

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

Industrialgunea
Lekunberri 9 - 31870
LEKUNBERRI

Cyclos IREBER

BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA

Iñigo - 637 781 789
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber

Herri Kirol Festa arrakastatsua

la ahazturik zuten askok Anizetoren bueltan egiten ziren korrika saioak eta ezagutu ere ez beste batzuk. Duela hilabete gutxi Ondare Kultur Taldeak bultzatuta zenbait herritarrek lekua Abuztuko azkeneko larunbatean zelaigunea garbitu eta korrika lekua prestatu zuten eta joan den abuztuaren azken larunbatean Herri Kirol Festa ospatu zuten. Kirol Mankomunitateak eta Ondare Kultur Taldeak antolatu zuten eta jende asko hurbildu zen Uitzira. Proba konbinatuak egin zituzten eta helduek ez ezik txikienek ere parte hartu zuten: koxkor biltzen, txingekin, zakuarekin, lasterka, trontzan, aizkoran... Arratsaldea girotu zuten trikitalariek eta Juan Mari Irastortza bertsolariak. 100 lagunetik gora bildu ziren eta amaitzeko afari-merienda eder baten bueltan elkartu ziren.

Beruetetik etorritako morroia

Anizeto Indakoetxea Berueten jaioa zen eta morroi etorri zen Uitzira, Munoa etxera. Korrika egiteko afizioa zuen eta herritarren artean ere zaleak egonik mutila apustuatarako presta-tzen hasi ziren. Berarentzako espresuki prestatu zuten lasterka egiteko leku hori. Martin Martirena berarekin ibilitakoa da eta gogoan du nola ibiltzen zen han korrika. Ondare Kultur Taldeak egindako ikerketa lanen arabera, Javier Etxarri lekunberriarrarekin apustua egin zuten 1949an eta 10.000 pezeta jarri zituzten jokoan.



GARAIZ Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika inglesa
lengua kimika

marrazketa teknikoak

euskera historia

unibertsitate mailako ikasgaiak

948 504 450
64825352

ETORRI ETA
INFORMAZI
ZAITEZKI!


*Egin zure ekarpena eta
lagundu Mailope!*

Mailoperen Kontu Zenbakia:
3035 0119 21 1190009471



> Plazaola Partzuergoa 20 URTE BIDEAN

34,5 km | 900m desnibela | Oinez 7 ordu 30 min. | Bizikletaz 3 ordu 15 min.



IMOTZ - BASABURUA

HERRIEN ARTEKO XENDAK

Ibilbide honek Imozko zortzi herriak eta Basaburuko bi lotzen ditu, hau da, Imozko Etxaleku, Oskotz, Muskitz, Zarrantz, Eraso, Latasa, Urritza eta Goldaratz; eta Basaburuko Udabe eta Beramendi. Treintateko ermita eta Ergamendi hegaltzean eta Korosi eta Añoa-Basakaitz-Amezti mendiak inguratzen ditugula. 35 kilometroko luzera du, bide eta xenda balizatuz oinez eta mendi bizikletan ibiltzen direnentzat. Aipos, herriz-herri zatika egiteko, 2-3 kilometroko etapetan.

Ibilbide hau dela eta, Nafarroako mendialde edo Nafarroa hezeko ibar ezezagun baina xarmant hauetara hurbiltzeko aukera ederra izan dezakegu; oraindik ere euskara bizirik duten eta bere ingurumenarekin oreka mantentzen jakin duten mendi magaletako herri txiki hauek ikusteko aukera. Imozko hiriburua den Etxaleku izan ezik, gainerakoak 100 biztanletik behertikoak dira. Merezki du herri hauetako karraketan ibiltzea antzinako harrizko etxe zaharrak ederresteko, baten batzuk XV. Mendekoak eta ia gehien-gehienak, XVII. Mendekoak diren etxeak. Gorenak diren Zarrantz eta Goldaratzetik, ibar hauetako eta urrutiko panoramika ederrez goza dezakegu.



“Hizkuntza ikasi eta leku berriak ezagutzeko aukera ezin hobea da”

Beatriz Oreja lekunberriarra Ingalaterran ibili da uda honetan “Au pair” moduan lanean.



Noiztik zaude Ingalaterran eta zertan zabilta?

Ekainaren 24ean etorri nintzen, “Au pair” moduan lan egitera. Hiru haur dituen familia batekin bizi naiz eta umeak zaindu eta etxeko lanekin laguntzen diet.

Zehazki zein hiri edo auzotan zaude?

Over Wallop da nire herriaren izena, Londresetik ordu batera dagoen herri txiki bat da.

Zenbat denborarako joan zara?

Bi hilabeterako. Abuztuaren 23an bueltatuko naiz Lekunberrira. Hasieran asko iruditzen zitzaidan, baina denbora oso azkar doa!

Bertara joateko aukera nolatan sortu zitzaizun?

Argi neukana zen uda honetan zer edo zer ezberdina egin nahi nuela, bidaiatu eta jende berria ezagutu! Baina dirua behar denez horretarako, au pair moduan bidaiatzea pentsatu nuen: familiak etxean hartzen zaitu, janaria beraiek erosten dute niretzako ere, eta astero ordaintzen didate nire lanarengatik. Beraz, diru horrekin asteburuetan leku berriak ezagutzera joaten naiz, batzuetan hemen egin ditudan lagunekin eta besteetan motxila hartu eta bakarrik joaten naiz. Interneten familia baten bila denbora asko eman nuen ikasturtean zehar, eta azkenean nire gustukoa zen bat topatu nuen, eta tira!

Zein da zure egunerokoa bertan?

Arropa garbitu, plantxatu, sukaldean lagundu, mahaia bil-

tzen lagundu, umeekin etxeko lanak egin... Baina horretaz gain, kotxe gidari lanak ere egiten ditut. Egun guztia lanean ematen dut, baina hemen gidatzea asko gustatzen zait, beraz niretzako ez da gogorregia. Gainera, nire helburua ingelesa praktikatzeko da eta modu horretan beraiekin egun osoa ematen dudanez aukera ezin hobea da.

Zer da gehien harritu zaituena?

Gauza guztietarako pertsona bat kontratatzen dutela. Konturatzeko naiz ez dutela euren umeekin denbora askorik pasatzen eta seme-alabek hori faltan botatzen dutela. Gauean ere ipuina nik irakurtzen diet!

Janariarekin zer moduz moldatzen zara?

Iritsi nintzen momentuan zera esan zidaten: Hemen pobrea den jendea potoloa dago, eta dirudunak argalak gaude. Nire familian ondo jaten dute, nahiko osasuntsu, eta beti janari asko dago etxean.

Bertara joateko asmoa duen bati zer gomendatuko zenioke?

Familian ahalik eta gehien integratzen saiatzea. Askotan behar baino lan gehiago egin behar dugu horretarako, baina helburua ingelesa praktikatzeko da!

Eta zer ez zenuke gomendatuko?

Ez nuke gomendatuko bi hilabete baino gutxiagorako etortzea. Lehen asteak gogorrak dira, eta ez duzu disfrutatzen denbora gehiegirik. Gero, lagunak egiten eta bidaiatzen asten zarenerako kasik bueltan zaude! Bestetik, dirua irabazi nahi baduzu, hau ez da lanik egokiena. Lana egiten dugu soldata baten truke, baina soldata hori asteburuan gastatzen dugu leku eta jende berria ezagutzeko!

Etxekoei, lagunei edo hemen dagoen inori mezuren bat bidali nahi badiozu, aprobeztatu!

Badakizue faltan botatzen zaituztedala, bai lagunak eta baita familia ere. Askok botatzen dut faltan Lekunberri eta udako herrietako festak, baina pozik nago hemen. Bueltatzen naizenean gauza asko egiteko gogoekin iritsiko naiz, beraz prestatu zaitetzeko koadrila!

“Hirigintza eredu berriak sortzen ari dira”

Eukeni Celaya irundarra da baina urteak daramatza Allin bizitzen eta 2012. urtean abokatu bulegoa ireki zuen Mikel Iraola donostiarrarekin batera.



Nolatan ireki zenuten bulego propioa Allin?

Mikel eta ni sustatzaile batzuentzako lanean genbiltzan, baina krisiarekin enpresak ixten joan ziren eta gu handik bereizten joan ginen eta gure aldetik hasi ginen. Bi bulego ditugu bat Allin eta bestea Donostian. Eta Mikel arlo merkantileko eta zibileko abokatu bat eta ni berriz administratibista eta hirigintzako.

Zer moduz doakizue?

Ongi, oso gustora gabiltza. Nafarroako bezeroak hona etortzen dira eta Gipuzkoakoak Donostiako bulegora joaten dira normalean. Baina gehienetan gu izaten gara gure bezeroak bisitatzeko ditugunak.

tikoa etab. kontu handian hartzen duen eredu. Hortan lanean dabilta zenbait sustatzaileekin topo egin dugu eta oso kontent gaude oso proiektu polita egiten gabiltzalako.

Proiektu pribatuak izango dira horiek...

Bai denak pribatuak dira, udalekin oso zaila da holako proiektu bat bultzatzea. Udalek nahikoa dute egiten dutena egiten. Udalen lana pribatuek egin nahi dutena kontrolatzea da. Ekimen pribatu bat egiteko hirigintzan, inbertiturak behar diren diru ikaragarria da. Azkeneko bost urte hauetan eskualdeko enpresa handi asko erori egin dira, bankuekin hartutako zama jasanezina bihurtu zaielako.. Udalek etxebizitzaren promotore bilakatzea arrisku handia izango litzateke nire ikuspuntutik.



Eskualdeko herri txiki hauetan etxe huts asko dauzkagu...

Erabili gabeko etxeen arazoa konpontzeko, arriskurik hartu gabe, Udalak lan asko egin dezake: jendea elkartzeko ekimenak bultzatu, proiektuak aurrera eramateko tramiteak arindu, etxeak zaharberritzeko araudiak laxatu, ...

Zergatik?

Adibidez, 20 etxebizitzako promozio bat egiteko hiru edo lau milioi euro jarri behar dituzu mahai gainean. Eta udalek hori egingo balute arrisku handian jarriko lukete udalaren etorkizun ekonomikoa, hori gaizki aterako balitz bizitza osorako hipotekatze-ko arriskua baitago... Nire iritziz, udalen eginbeharra pribatuek egiten dituztenak ongi kontrolatu, orientatu eta behar bezala zuzentzea da eta horretarako legezko tresna ugari dauzka. Kanpotik barrutik baina lan handiagoa egin dezakete.

Eta hirigintzan orain lanik ba al duzue?

Bai. Gainera gaur egun hirigintza asko aldatzen ari da. Duela urte batzuk hirigintzan asko ordaintzen zen lurrengatik, ahal zen aprobetxamendu guztia lortzen saiatzen ziren, ahalik eta azkarren saldu eta ahalik eta gehien fakturatu. Hori orain bukatu egin da. Orain hirigintza eredu berri bat eta beste irizpide batzuk ari dira indarra hartzen. Ingurugiroa, sostenigarritasun energe-

Krisia nabaritzen al duzue?

Gu krisian geunden hau sortu genuenean. Nik uste berriz ere proiektu politak badirela.

Eta enpresa batek zuregana jotzen duenean zure lana zein izaten da?

Guk hasierako estudioak egiten ditugu. Edozein lurren baliabide urbanistikoei buruz informatu, eraikitzeke zein lursail diren onak eta zeintzuk ez, udalekin edo gobernuarekin negoziatu zerbait aldatu nahi baldin bada, salerosketa kontratuak prestatu, bideragarritasun azterketak,... Etxebizitza ekimen bat aurrera eramateko lau fase daude: planeamendua, kudeaketa, eraikuntza eta salmenta. Guk arkitektoekin batera planeamenduan (Plan partzialak, xehetasun azterketak...) eta kudeaketan (errepartzelazio proiektuak) parte hartzen dugu. Gainera, enpresari eraikuntzan eta salmentan aholkularitza teknikoa eman ohi diogu.

Eskualdeko herri txiki hauetan etxe huts asko dauzkagu...

Erabili gabeko etxeen arazoa konpontzeko, arriskurik hartu gabe, Udalak lan asko egin dezake: jendea elkartzeko ekimenak bultzatu, proiektuak aurrera eramateko tramiteak arindu, etxeak zaharberritzeko araudiak laxatu, ...

Garai bateko etxe hauek oso handiak dira eta etxebizitza bat baino gehiagotan banatu daitezke. Nire ustez, egun indarrean dagoen zaharberritzeko araudiak ez du asko laguntzen.

Baina hirigintza arau horiek udalak berak jarritakoak dira...

Bai eta bere esku dago horiek aldatzea. Ez da kritika egitearren, azken batean hamaika irizpide daude, denak errespetagarriak eta bakoitzak bereak ditu, baina nire ustez gauzak erraztearen eta laguntzearen alde egin beharko lukete.



Hirigintza arloko abokatu aditua da Eukeni.

iraila

6

Areso: Areso Mendi Martxa. Irteera goizeko 08:00etan Aresoko plazatik.

10

Lekunberri: Pilareko Jaien karte lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna.

20

Plazaolako Maratoi Erdia. Mugiron izanen da irteera.

20

Leitza: Talo Eguna.

27

Lekunberri: Sagardo Eguna.

LARRAUNGO PILOTA GOXUA TXAPELKETAKO PARTIDUAK

IRAILAK 4 ETA 5 BARAIBAREn

- GOXUTA-MATIAS vs SATRUS-LIZA
Irailak 4 ostirala 19:00
- SANTAMARIA-ETXAMENDI vs GURREA-BARBERENA
Irailak 5 larunbata 16:00
- AIMAR-ASIER vs OREJA-ALTZO
Irailak 5 larunbata 17:00

IRAILAK 11 ETA 12 GORRITIn

- GOXUTA-MATIAS vs AIMAR-ASIER
Irailak 11 ostirala 19:00
- SATRUS-LIZA vs GURREA-BARBERENA
Irailak 12 larunbata 16:00
- SANTAMARIA-ETXAMENDI vs OREJA-ALTZO
Irailak 12 larunbata 17:00

IRAILAK 18 ETA 19 ALDATZen

- GOXUTA-MATIAS vs OREJA-ALTZO
Irailak 18 ostirala 19:00
- AIMAR-ASIER vs GURREA-BARBERENA
Irailak 19 larunbata 16:00
- SANTAMARIA-ETXAMENDI vs SATRUS-LIZA
Irailak 19 larunbata 17:00

IRAILAK 4 ETA 5 BARAIBAREn

- BARBAJERO-LEGARRA vs ISUSKO - IGOR MITXAUS
Irailak 4 ostirala 20:00
- MARIÑELARENA-ANARTZ vs OIAN-MIEL
Irailak 5 larunbata 18:00
- MIKEL IRIARTE-JOANES vs GELBENTZU ANAIK
Irailak 5 larunbata 19:00

IRAILAK 11 ETA 12 GORRITIn

- BARBAJERO-LEGARRA vs MIKEL IRIARTE-JOANES
Irailak 11 ostirala 20:00
- OIAN-MIEL vs ISUSKO - IGOR MITXAUS
Irailak 12 larunbata 18:00
- MARIÑELARENA-ANARTZ vs GELBENTZU ANAIK
Irailak 12 larunbata 19:00

IRAILAK 18 ETA 19 ALDATZen

- BARBAJERO-LEGARRA vs GELBENTZU ANAIK
Irailak 18 ostirala 20:00
- OIAN-MIEL vs MIKEL IRIARTE-JOANES
Irailak 19 larunbata 18:00
- ISUSKO - IGOR MITXAUS vs MARIÑELARENA-ANARTZ
Irailak 19 larunbata 19:00



BIZIRAUTEKO SUKALDARITZA
COCINA DE SUPERVIVENCIA

EGUR TAILA
TALLA DE MADERA

Pintura

WORD HASTAPENAK
Iniciación WORD

INTERNET HASTAPENAK
Iniciación INTERNET

HELDUENTZAKO
DANTZA TAILERRA



ANTZERKI TAILERRA
TALLER DE TEATRO

IRAKURKETA KLUBA
CLUB DE LECTURA

Ps **PHOTOSHOP**
EXPRESS

IZENA EMATEKO EPEA: IRAILAK 30
INSCRIPCIONES HASTA EL 30 DE SEPTIEMBRE

INFO. 948 60 45 82 · MITXAUSENEA KULTUR ETXEA

Alliko Pesta-Eguna

Irailak 5, larunbata

13:00 Suziria eta bermuta
14:00 Herri bazkaria
16:30 Mus txapelketa
17:00 Haurrentzako jolasak
19:30 Antzerkia Lorena Arangoaren eskutik
20:30 Barrikotea
23:00 Gaupasa DjBull-ekin

Baraibar

Irailak 29, asteartea

11:00 Festan hasiera
11:00 Meza nagusia
12:00 Puzgarriak
12:00 Amaiketakoa
13.30 Aizkolariak
16:30 Puzgarriak
17:30 Pilota partiduak
19:00 Dantzaldia mendiberrirekin

Urriak 3, larunbata

11:30 Puzgarriak eta ume jokoak
14:00 Herriko bazkaria
14:00 Dantzaldia mendiberrirekin
17:00 Magoa eta puzgarriak
18:00 Mus txapelketa asiera
19:00 Txokolatada
20:30 Zezen suzko
24:00 Musika taldea

Uitzi

Irailak 25, ostirala

20:00 Txupinazoa. Ondoren poteoa Dj Oixanirekin.
22:00 Herri afaria
01:00 Dj Fran Barroso

Irailak 26, larunbata

12:00 Mus txapelketa
14:00 Herri bazkaria
15:00 Herri kirolak
20:00 Dantzaldia Dj Oixanirekin
22:00 Herri afaria Merkualde Elkartean
01:00 Dj Fran Barroso

Irailak 27, igandea

10:00 Diana
11:00 Pilota partiduak
12:00 Espuma festa
16:00 Puzgarriak
18:30 Txokolatada
19:30 Bertsolariak: Julio Soto eta sorpresa!
22:00 Gazteek egindako afaria Merkualde Elkartean.

Irailak 28, astelehena

12:00 Marianitoa
14:00 Gazte bazkaria
16:00 Ume jokuak
18:30 Toka lehiaketa
20:00 Dantzaldia Dj Oixanirekin
22:00 Pintxo afaria
01:00 Dj Gaztea

Irailak 29, Asteartea

09:00 Auroroak
12:00 Meza Nagusia
13:00 Aizkolariak
18:00 Kafea eta pastak
19:00 Futbolin txapelketa
00:00 Denak lotara!

Urriak 2, ostirala

17:30 Puzgarriak
18:00 Humeak taloan ikasten
20:00 Patata tortilaren lehiaketa

Urriak 4, igandea

9:30 Goiz soinua txistulariekin
10:30 Etxez etxeko erronda
12:00 Puzgarriak
17:30 Pilota partiduak
18:00 Mus txapelketa amaiera
18:00 Puzgarriak
19:00 Dantzaldia mendiberrirekin
20:00 Zezen suzko

Festa zoriontsuak!

Arruitz

Irailak 18, ostirala

20:30 Pesten hasierako suziria.
21:00 Batukada
22:00 Gazte afaria
24:30 Kontzertuak
Skaleak
Muskharian
Sardeska

Irailak 19, larunbata

11:30 Erronda etxex etxe
14:00 Herri bazkaria
16:00 Bingoa
17:00 Gaztetxoentzako eskulanak eta puzgarriak
17:00 Mus txapelketa (elkartean)
18:30 Antzerkia
19:30 Txokolatea eta zezensuzkoa
24:30 Dantzaldia GABENARA taldearekin.

Irailak 20, igandea

11:30 Erronda etxex etxe
12:00 Mus txapelketako finala
17:00 Gaztetxoentzako pilota partiduak
18:00 Monologoak
19:00 Duetloi desafioa ARRUITZ-LEKUNBERRI
19:30 Pesten bukaerako mokadutxo.